

## C.11. ELGOIBAR

### C.11.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

#### C.11.1.1. **San Bartolome, 35-37**

Zuzendaritza: Pía Alkain Sorondo  
Finantzazioa: Amaro eraikuntzak eta proiektuak SL; Gipuzkoako Foru Aldundia

#### C.11.1.1. **San Bartolomé, 35-37**

Dirección: Pía Alkain Sorondo  
Financiación: Amaro eraikuntzak eta proiektuak SL; Diputación Foral de Guipuzkoa

*The archaeological sondages revealed a very simple stratigraphy of little archaeological interest.*

Mintzagai dugun orube hori Elgoibarko Erdi Aroko barrutiaren barnean eta hiribilduko bide nagusietako batean badago ere, esku hartze arkeologikoak ez digu ondare intereseko elementurik eskaini. Orube osoan egindako indusketak estratigrafia xumea erakutsi du, geruza edo depositu batzuk ziren, esparru osoan zehar errepikatzen zirenak. Orube osoan, zolarria eta aro garaiakideko betegarri batzuk kendu ondoren, substratu geologiko naturala ageri zen, baina interes arkeologikoko materialik edo egiturarik ez zegoen.

A pesar de que el solar de referencia se situaba dentro del recinto medieval de Elgoibar y en una de las principales vías de la villa, la intervención arqueológica no aportó elementos de interés patrimonial. La intervención arqueológica ofreció una estratigrafía sencilla, con una serie de depósitos repetidos a lo largo de todo el espacio. En todo el solar, tras la eliminación de la solera y algunos rellenos de época contemporánea, se registraba el sustrato geológico natural sin localizarse materiales o estructuras de interés arqueológico.

*P. Alkain Sorondo*

## C.12. ERREENTERIA

#### C.12.1. **Aitzbitarte III, V eta IX leizeak. Horma artearen azterketa**

Zuzendaritza: Diego Garate, Olivia Rivero; Joseba Rios-Garaizar  
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

#### C.12.1. **Cuevas de Aizpitarte III, V y IX. Estudio arte parietal**

Dirección: Diego Garate, Olivia Rivero; Joseba Rios-Garaizar  
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

*During 2016 a study was conducted of the Palaeolithic cave art located in Aizpitarte III-V-IX. The study was funded by the Bizkaia Provincial Council and resulted in the documentation of all the depictions. Furthermore, existing topographies were revised and completed, and work began on the geomorphological characterisation of all three caves.*

2015eko irailean, Felix Ugarte Elkarteko zenbait espeleologo (Javier Busselo, Giorgio Studer, Sabino Orbegoza eta Imanol Errazkin) eta Joseba Rios-Garaizar eta Diego Garate arkeologoak Aitzbitarte V leizea ikustera joan zirenean, azken honek hainbat irudi antzeman zituen horman grabatuak. Handik hamar egunera, Javier Busselo eta Giorgio Studer espeleologoen zenbait grabatu aurkitu zituzten Aitzbitarte III eta IX leizeetan, eta gero halaxe zirela baieztatu zuten arkeologoen. Gipuzkoako Foru Aldundiak beharreko babes neurriak hartu zituen aurkikuntza horiek zaintzeko eta egin beharreko azterketa lanak finantzatu zituen.

Azterketaren helburu nagusia zen hiru leizeetako hormetako irudi guztiak miaztea eta dokumentatzea, haiek planimetria zehatzagoetan egokitzea eta leize

En septiembre de 2015, durante una visita a la cueva de Aizpitarte V por parte de varios espeleólogos de Felix Ugarte Elkartea (Javier Busselo, Giorgio Studer, Sabino Orbegoza e Imanol Errazkin), y los arqueólogos Joseba Rios-Garaizar y Diego Garate, este último reconoció varias figuras grabadas en la pared. Diez días después, los espeleólogos Javier Busselo y Giorgio Studer localizaron grabados en las cuevas de Aizpitarte III y IX, que fueron posteriormente confirmados por los arqueólogos. La Diputación Foral de Gipuzkoa tomó las medidas de protección necesarias para salvaguardar los descubrimientos y financió el estudio de los mismos.

El objetivo fundamental del estudio era la prospección y documentación de todos los motivos parietales de las tres cavidades, su localización en nuevas



Bisonte irudia, ezkerraldera begira, Aitzbitarte V leizean.

Bisonte grabado orientado a la izquierda en la cueva de Aitzpitarte V.

bakoitzeko esparru sinbolikoa hobeto ulertzeko datu geomorfologikoak eskuratzea.

Lanen emaitza izan zen hogeita hamar bat motibo grabatu aurkitzea Aitzbitarte III leizean, haien erdiak irudiak ziren. Gehienak animalia irudiak dira, bisonteak, batzuetan animalia zatiak bakarrik ageri dira, eta adakera edo garondo eta bizkarraren marrazkiak bakarrik ere zenbaitetan. Zaldi irudiak ere ugari dira, baina beste animalia batzuk, uroa eta ahuntza, esate baterako, oso gutxitan ageri dira. Aipatzekoa da hegazti irudi bat ere azaldu dela, baina burua besterik ez da nabari. Irudienak ez diren trazuak, ugari haiek ere, elkarren gainean eginak izan daitezke, azalerak oso gaizki kontserbatuak baitaude, eta horrek zaildu egiten du irudi batzuk behar bezala identifikatzeko lana.

Aitzbitarte V eta IX leizeetan aurrez aurkitutako motiboak dokumentatu ditugu, baina dekoratutako beste gunerik ez dugu atzeman. Arkeologoek Disto X2 gailuan TopoDroid programarekin batera egindako topografiatan egokitu dira grabatu guztiak. Kaltzitazko zatien laginak ere hartu ditugu Uranio serieen bidez datazioa egiteko, zenbait ekitaldi geologikoren kronologia zehaztu ahal izateko, batik bat Aitzbitarte IX leizeko galeria nagusia betetzeko prozesuak eta Aitzbitarte III leizeko beheko galeriaren sarbidea buxatzeko prozesua.

Laburbilduz, esan behar da interes zientifiko handia dutela Aitzbitarte III eta IX leizeetako aurkikuntzek, arte Gravettiar frantsesean oso ohikoa den, baina Kantauri aldean ez dagoen estilo grafikoari erantzuten baitiote. Aitzbitarte IX leizeko bisonteak, esate baterako, bi adar paralelo ditu elkarrengandik bereiz, bata muturrekin lotua eta bestea konkorrarekin lotua, eta Gargas, Roucadour edo Cussac leize frantsesetan aurkitutakoen berdina da irudikatze sistema hori, eta Isturitzeko leizeko eta Gargas leizeko arte higitokian ere ageri da. Aitzbitarte III leizean ere aurkitu dira bisonteen irudiak, eskema berdinari erantzuten diotenak. Hori bereziki garrantzitsua da kontuan izanik Isturitzen ondotik, Aitzbitarte III leizea dela Mendebaldeko Pirinioetako giza finkamendu nagusia Gravettia-

planimetrías más precisas y la obtención de datos geomorfológicos para comprender mejor el espacio simbólico de cada cavidad.

Los resultados nos permiten contabilizar una treintena de motivos grabados en la cueva de Aitzpitarte III, la mitad de ellos figurativos. Mayoritariamente se trata de representaciones animales de bisonte, muchas de ellas parciales e incluso reducidas a la cornamenta o a la línea cérvico-dorsal. La presencia de caballos es también importante mientras que otros animales como el uro o la cabra aparecen puntualmente. Cabe destacar una representación de ave reducida a la cabeza. Los trazos no figurativos, también abundantes, pueden estar sobre representados debido al deficiente estado de conservación de las superficies, lo que dificulta la identificación correcta de algunas imágenes.

En las cuevas de Aitzpitarte V y IX se han documentado los motivos ya localizados con anterioridad, sin que hayamos localizado nuevas áreas decoradas. Todos los grabados han sido situados en las topografías realizadas con el dispositivo Disto X2 junto al programa TopoDroid por los espeleólogos. También se han tomado muestras de formaciones calcíticas para su datación por medio de las series de Uranio, con el fin de acotar cronológicamente diversos eventos geológicos, principalmente los procesos de colmatación de la galería principal de la cueva de Aitzpitarte IX y el taponado del acceso a la galería inferior de Aitzpitarte III.

En definitiva, los descubrimientos en Aitzpitarte III y IX son de notable interés científico puesto que responden a un estilo gráfico muy característico del Gravetiense francés y ausente en el cantábrico. El bisonte de Aitzpitarte IX, en concreto, con dos cuernos paralelos y separados, uno unido al morro y el otro a la giba, presenta paralelos idénticos en las paredes de las cuevas de Gargas, Roucadour o Cussac, y en el arte mueble de Isturitz y Gargas. En Aitzpitarte III también hemos localizado representaciones de bisontes que responden a ese mismo esquema. Esto es especialmente relevante habida cuenta que, después de Isturitz, Aitzpitarte III es el principal asentamiento humano del Pirineo Occidental durante el Gravetiense.

rean. Aspaldi ez dela, 2016. urtean, antzeko multzo bat aurkitu da Alkerdi 2 leizean (Urdazubi, Nafarroa), eta honek are informazio handiagoa eskaintzen du arte estilo horrek mendebalderantz izan zuen hedadurari dagokionean.

Aitzbitarte V leizeari dagokionean, agertu diren irudikapenak Pirinioetako Magdaleniar erdiko aztarnategietakoen antzekoak dira, Kantauri aldera zabaldu zirenak. Eskema grafiko horri erantzuten diote identifikatu diren lau bisontek.

Recientemente, en 2016, se ha localizado un conjunto similar en la cueva de Alkerdi 2 (Urdax, Navarra) que aporta todavía mayor información sobre la extensión de este estilo artístico hacia el occidente.

En el caso de la cueva de Aizpitarte V, las convenciones representadas son comunes a los yacimientos pirenaicos del Magdaleniense medio que tienen su prolongación en el cantábrico. Los cuatro bisontes identificados en la cavidad responden a ese esquema gráfico.

*D. Garate Maidagan; O. Rivero Vila; J. Rios-Garaizar; M. Arriolabengoa; FUE*

## C.13. ESKORIATZA

### C.13.1. **Atxorrotz gaztelua (lehen 'Aitzorrotz' deitua)**

Zuzendaritza: Mario Puyal  
Diru-laguntza emaila: Eskoriatzako Udala;  
Gipuzkoako Foru Aldundia

### C.13.1. **Castillo de Atxorrotz (antes denominado «Aitzorrotz»)**

Dirección: Mario Puyal  
Subvención: Ayuntamiento de Eskoriatza;  
Diputación Foral de Gipuzkoa

*Aitzorrotz was originally a Roman castellum built to monitor and control the area and the road that linked the Bay of Biscay with the Álavan Plain. Later on, due to its strategic location, it became a key part of the medieval defensive system established by the Kingdom of Navarre in Gipuzkoa. The aim of our research over the last few seasons has been to study the defensive area of the fortification and analyse its transition from the late Roman period to Late Antiquity and the Middle Ages.*

### **Sarrera**

Kanpaina berri honetan hainbat helburu izan ditugu gazteluaren defentsa inguruarekin loturik. Gogora dezagun aurtengo proiektuak hiru helburu dituela: 1 gotorleku nagusiaren analisia, haren etapa kronologikoak edo/eta esparru gotortuaren erabilera datak aztertuta; 2 defentsa sistemaren hedadura; eta 3 Atxorrotzen espazioaren kontrolaren analisia Gipuzkoako ekialdeko eskualde zabalaren barnean, Durangaldearen mugan. Espazio horiek argi definituak zeuden Erdi Aroan.

Aztertzeko oinarri orokor horretatik abiatuta, egungo kanpaina gaztelutik hurbil dagoen haitzean egin dugu. Haitz hori Atxorrotzeko gotorlekuaren defentsa sistemaren zatitzat hartzen zen, eta egiaztatu ahal izan dugun bezala, gotorleku exentu txiki bat zuen, zurezko eraikuntza elementuak eta kareorezko eraikuntza aztarnak zituen.

Hainbat faktoreren eraginez eremua nahasia badago ere, gaztelu nagusiaren antzeko kronologiara eramango gintuzkete material ekarpenek.

### **Aztertu beharreko haitzaren deskribapena**

Haitz txikia defentsa gisa erabili zuten, gaztelu nagusia baino aurreragoko puntu gisa. Gaztelutik 80 bat metrora dago eta bien artean eremu lau bat dago ur iturri naturalekin. Horrenbestez, segur aski etxebizitza eta aziendetzako estalpe guneren bat egongo zen bertan. Horri erreparatzen badiogu, pentsa dezakegu espero genuena baino azalera handiagoko gaztelu-herrixka konplexu baten aurrean geundeekeela. Pentsa

### **Introducción**

En esta nueva campaña nos hemos centrado en varios objetivos relacionados con el contorno defensivo del castillo. Recordamos que el proyecto de este año tiene tres objetivos: 1 análisis de la fortificación principal con el estudio de sus etapas cronológicas y o fechas de uso del espacio fortificado; 2 extensión del sistema defensivo de la tenencia y 3, análisis del control espacial de Atxorrotz dentro de la amplia comarca oriental de Gipuzkoa, lindante con el Duranguesado. Espacios claramente definidos en la Edad Media.

Sobre esta base de estudio general la actual campaña se ha desarrollado en la Peña cercana al castillo, considerada como parte del sistema defensivo de fortaleza de Atxorrotz y que como hemos podido comprobar, constaba de una pequeña fortificación exenta que disponía de elementos constructivos de madera y evidencias de construcción con argamasa.

A pesar de ser una zona removida por diferentes factores, las aportaciones materiales nos sitúan en una cronología similar al castillo principal.

### **Descripción de la Peña a estudiar**

La pequeña Peña sirvió de defensa como punto adelantado al castillo principal. Se encuentra a unos 80 metros de distancia del castillo y entre ambas hay una zona llana con fuentes naturales de agua, por lo posiblemente existió algún espacio de viviendas y cobertizos para el ganado, con lo que nos encontraríamos ante un complejo castillo-aldea de mayor superficie de lo esperado. Cabe pensar que pudo tener